



JABEEN ERKIDEGOETAN ELKARBIZITZEKO GIDA

GUIA PARA LA CONVIVENCIA EN COMUNIDADES DE PROPIETARIOS

Asesoría Jurídica y Área de Modernización
Aholkularitza Juridikoa eta Eraberritze Saila
Ayuntamiento de Basauri - Basauriko Udala



AURIKIDE

- 1. Aurkezpena**
- 2. Jabeen Erkidegoak**
 - 2.1. Zaratak
 - 2.2. Jokaera gogaikarriak saihestea
 - 2.3. Guztiontzako esparruak mantentzea
 - 2.4. Animaliak etxebizitzetan
- 3. Jabeen erkidegoak arautzen dituzten arau oinarritzkoak**
 - 3.1. Erkidegoak
 - 3.2. Jabeen eta errentarien betebeharrak
- 4. Beste datu interesgarri batzuk**
 - 4.1. Jabeen erkidegoen erantzukizun zibila
 - 4.2. Eraikina kontserbatzeko betebeharrak eta eraikinaren ikuskaritza teknikoaren ordenantza
- 5. Elkarrekin ondo bizitzeko aholkuak**
- 6. Erkidegoan igogailua instalatu nahi digu, zer egin behar dugu?**
 - 6.1. Beharrezko urratsak
 - 6.2. Baldintza teknikoak
 - 6.3. Egoitza-higiezinetan igogailuak instalatzeko diru-laguntzak
- 7. Hobe zuretzat, hobe basaurirentzat**
 - 7.1. Murriztu, berrerabili eta, ondoren, birziklatu !
 - 7.2. Animaliak eta hiriko gune publikoak
- 8. Telefono interesgarriak**

1. AURKEZPENA

Basauri udalerrian eraldaketa garrantzitsuak izan dira hainbat arlotan. Horren ondorioz, herritarren elkarbizitzarako testuinguru berria sortu da, eta beharrezkoa da politika publikoak eta jarduerak garatzea, herritarren arteko harreman onak sustatu eta indartzeko. Udalak politika eta jarduera horiek bildu nahi izan ditu, eta horretarako, gida hau editatu du. Jabeen Erkidegoei bidaliko diegu, eta horrez gain, gidaren ale bat eskatu dezakezu HIABn, edo Udalaren webgunearen bitartez kontsultatu: www.basauri.net

Gida praktiko eta irakurtzeko erraza da. Bertan bildu dira erkidego batean bizitzeko oinarrizko printzipioak eta jabeen erkidegoak arautzen dituen araudia, Ohiko Galderen bitartez azalduta. Galderei erantzun argiak eta zehatzak ematen saiatu gara, tresna azkar eta erabilgarria izan dadin, eta auzotarren zalantzak argitzeko balio dezan.

Gidan beste gai batzuk ere jaso dira, besteak beste: igogailuak erkidegoan jartzeko diru-laguntzak eta birziklatzeko aholkuak. Horrek guztiak, udalerrian eta orokorrean, Basauriko auzotarren bizitza-kalitatea hobetzea du xede.



2. JABEEN ERKIDEGOAK

2.1 ZARATAK

Auzotarrak ondo deskantsatzea oso garrantzitsua da, elkarrekin gustura bizitzeko. Hori dela-eta, eraikinen barruan zarata eginez gero, elkarbizitzarako muga zentzuzkoak errespetatu behar dira, eta pertsona guztiak aintzat hartu.

Gaueko ordutegian, 22:00etatik 8:00etara, honako hauek egitea saihestu behar dugu:

- Beste auzotarrei etxebizitzetan lo egitea eragozten dieten jarduerak: esaterako, festak, altzariak arrastatzea...

- Abestea edo oihukatzea

- Etxean brikolaje-lanak, konponketak edota antzekoak egitea.

- Gailuek, tresnek edo animaliek sortzen dituzten zaratak.

Zarata horiek oso altuak badira, egunez ere ez egiten saiatu behar da. Horrez gain, honako hauek kontuan hartu behar ditugu:

- Gailu akustikoen (telebista eta irratia) eta musika-tresnen bolumena egokitu behar dugu, ezarritako mugak ez gaunditzeko.

- Etxeko animaliak edukiz gero, beharrezko neurriak hartu behar dira, animalien zaratek auzotarrak molestatu ez ditzaten.

2.2 JOKAERA GOGAIKARRIAK SAIHESTEA

Zaratekin batera, portaera batzuk askotan gogaikarriak dira auzotarrentzat. Horregatik honako jokabide hauek saihestu behar ditugu:

- Balkoietatik, terrazetatik edota leihoetatik objektuak botatzea: esaterako, zigarro-puntak, hondakinak...

- Balkoietan dauden landareak eta loreak ureztatzea, baldin eta herri-bidera edo bertako elementuetara ura botatzen bada, 8:00etatik 22:00etara bitartean. Ordutegi horretatik kanpo ureztatu ahal dira, auzotarrak ez molestatzeko neurriak hartuta.

- Arropa oso bustita esekitzea lehortzeko, baldin eta ur-tantak kalera erortzen badira.

- Leihoetatik edo balkoietatik arropa, alfonbrak edo beste objektu batzuk astindu nahi baditugu, 8:00etatik 10:00etara bitartean egin behar dugu; betiere, beharrezko arretaz, auzotarrak eta oinezkoak ez molestatzeko.



2.3 GUZTIONTZAKO ESPARRUAK MANTENTZEA

Honako hauek saihestu behar ditugu:

- Paperak, ontziak, txikleak eta abar lurrera botatzea.
- Likidoak, hondakinak eta abar pilatzea, kiratsa, intsektuak eta izurriteak ekiditeko.
- Etxeko animaliek ezin dute kaka edo pixarik egin guztiontzako leketan. Eta egiten badute, jabeek garbitu behar dute.
- Erkidegoko altzariak apurtzea.
- Igogailuan karga gehiegi sartzea.
- Igogailuan etxeko animaliekin sartzea, beste auzotar batzuk igogailua erabiltzen ari badira.

2.4 ANIMALIAK ETXEBIZITZETAN

-Udal araudiaren arabera, etxeko animaliak eta animalia heziak etxebizitzetan eduki ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira: animaliei bizitzeko leku egokia atondu behar zaie, higiene- eta osasun-baldintzarik onenetan; eta ez dira eragotzi behar herritarren segurtasuna eta lasaitasuna.

-Etxeko animalien jabeek animaliak identifikatu eta erroldatu behar dituzte; eta horrez gain, tresna mikroelektronikoa sartuko zaio animaliari, jaio eta handik hilabetera.

-12.000 euroko erantzukizun zibilaren aseguruia izatea.

-Animaliei, gutxienez, urtero egin behar die albaitariak azterketa klinikoa.

-Txakurraren arraza arriskutzat sailkatuta badago, gogoratu udal baimena eskatu behar duzula, erosi edo etxera eraman aurretik.

-Debekatuta dago txakurrak maiz edukitzea balkoietan, garajeetan, sotoetan... baldin eta txakurren usainak, uluak edo zaunkak auzokoentzat gogaikarriak badira.

Udal araudiari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, honako ordenantza hau kontsulta dezakezu: Animalien ukantza eta babesak eta animalia arriskugarrien araubide juridikoa araupetzen dituen Udal Ordenantza.



3. JABEEN ERKIDEGOAK ARAUTZEN DITUZTEN ARAU OINARRIZKOAK

3.1. ERKIDEGOAK :

Jabetza Horizontalaren Legeak (uztaileko 21eko 49/1960 Legea eta ondorengo aldaketak) auzotarren arteko harremanak arautzen ditu eraikinean eratutako jabeen erkidegoan.

Horrez gain, erkidego bakoitzeko estatutuek arautzen dituzte nola erabili behar diren eraikina eta guztiontzako elementuak

[Nork hartu behar ditu erabakiak jabeen erkidegoetan?](#)

Jabeen erkidegoek gobernu-organoak dituzte; eta, estatutuetan bestela ezarri ez bada, urtebeterako aukeratzen dira. Honako hauek dira:

- jabeen batzarra
- presidentea eta presidenteordea
- idazkaria
- administratzailea

Erkidegoko presidentek har ditzake bere gain idazkariaren eta administratzailearen eginkizunak; betiere, baldin eta estatutuetan berariaz ezarrita ez badago, erkidegoko presidentea ez den beste pertsona batek egin behar dituela eginkizun horiek.

[Nork deitu behar du Jabeen Batzarraren bilerara?](#)

Jabeen erkidegoko presidentek deitu behar du: hark erabaki duelako, edota lau jabeetatik batek edo gehiagok –partaidetza-kuoten %25eko ordezkaritza– eskatu duelako.

[Nor joan ahal da Jabeen Batzarraren bileretara?](#)

Jabeak berak ez du ezinbestez Jabeen Batzarraren bileretara joan behar; ordezkaritza laga diezaioke hirugarren bati, baldin eta ahalordea emateko oharra edo notario-ahalordea sinatzen badu.

Etxebizitza edo lokal baten jabe bat baino gehiago badaude, haietako bat ordezkari izendatu beharko dute, bileretara joan dadin eta botoa eman dezan.



Zenbat Jabeen Batzarraren bilera-mota daude? Arruntak edo bereziak izan daitezke.

- Arruntak, gutxienez, urtean behin egin behar dira, aurrekontua eta kontu orokorrak onartzeko. Horrekin batera, beste gai batzuk ere jorra daitezke.
- Bilera bereziak antolatzen dira, aurrekontua eta kontu orokorrak onartzea ez diren beste gai batzuk eztabaidatzeko.

Jabe batek eskatu ahal dio idatziz jabeen erkidegoko presidenteari, datorren bileran gai bat azter dezatela? Bai. Presidenteak datorren bileraren gai-zerrendan sartu beharko du gai hori. Jabeak eskubide hori dauka, zorduna bada ere.

Zein datu eduki behar ditu Jabeen Batzarraren bilera-deiak?

- Bilera non, noiz eta zein ordutan izango den.
- Gai-zerrenda (bileran aztertuko diren gai guztien zerrenda), eta erkidegoarekin zorrak dituzten jabeen zerrenda, zor horien epea bete bada.

Bileraren hasieran jabe batzuek erkidegoarekin epea betetako zorrak badituzte, ba al dute botoa emateko eskubidea?

Ez, zordunen zerrendan haien izena ez badago ere. Jabe bati boto-eskubidea kenduko zaio, hiru baldintza hauek betetzen direnean:

- Epea betetako zorrak ordaindu ez baditu.
- Epaiketa bidez aurkaratu ez badu.
- Zorreetan duen kopurua ez badu epailearen nahiz notarioaren zainpean utzi.

Jabeen Batzarraren bileran, gai-zerrendan ez zegoen gai bati buruzko erabaki bat hartzen bada, ba al du baliorik? Ez, ez du baliorik. Baina epaiketa bidez aurkaratu behar da.

Erabil daiteke “Galderen eta eskaeren txanda”, gai-zerrendatik kanpoko gaiak gaineratzeko? Ez. Aztertzeke gai guztiek gai-zerrendan egon behar dute.

Zenbat jabe bertaratu behar dute Batzarraren bilerara, erabakiak baliozkoak izan daitezen?

Bi deialdi egin behar dira beti bilerarako: lehena eta bigarrena.

Lehen deialdian, jabe gehienek egon behar dute.

Ez badaude, bigarren deialdia egiten da ordu erdi geroago, eta bertan dauden jabeekin egiten da bilera.



Jabetza Horizontalaren Legean ezarritakoaren arabera, zein gehiengo eskatzen dira, Batzarrean erabakiak hartzeko?

- Ahobatezkotasuna: Jabetza horizontalari buruzko titulu eratzailean edo erkidegoaren estatutuetan jasotako arauak onesteko edo eraldatzeko.
- Jabe guztien hiru bostenak (3/5): Igogailua, atezaindegia, atezaintza, erabilera zehatzik ez duten guztiontzako elementuak zaintzeko edo errentan emateko.
- Jabe gehienak: Oztopo arkitektonikoak kentzeko, oztopo horiek eragozten dutelako minusbaliatuak eraikinera sartu eta bertatik ibil daitezen; eta igogailua instalatzeko, pertsona minusbaliatuak badaude.
- Jabe guztien herenak (1/3): Gai baten berri izateko eta telekomunikazio-zerbitzuak eskuratzeko azpiegitura erkideak jartzeko.
- Gehiengo soila (aldeko boto gehiago): Honako hauek onartzeko: kontu eta aurrekontu orokorrak, ohiko eta ez-ohiko obrak, higiezin hobetzeko lanetarako gastuak, karguak, barneko arauak, zerbitzuen funtzionamendua eta epaiketa bidezko akzioak, erkidegoa babesteko.

3.2. JABEEN ETA ERRENTARIEN BETEBEHARRAK:

Erkidegoaren arauak errespetatzea.

- Erkidegoaren instalazio orokorrak eta gainerako osagai erkideak errespetatzea, horiek erabilera orokorrekoak izan nahiz edozein jaberaren erabilera pribatibokoak izan.
- Jabeek edo errentariak ezin dute guztiontzako elementuak era eskusiboan erabili, baldin eta estatutuetan edo titulu eratzailean hori aurreikusita ez badago, edo Batzarrek aho batez onartu ez badu.
- Etxea eta instalazio pribatiboak egoera onean artatzea, erkidegoari kalterik ez egiteko. Jabeak edo errentariak arretarik ez izateagatik, kalteak eragiten baditu, ordaindu beharko ditu.
- Guztiontzako elementuak garbitzeko parte hartzea.
- Norberaren etxebizitza edo lokalean sarrera onartzea, hori ezinbestekoa bada, kalteak saihesteko higiezinan edo auzotarrengan.
- Honako jarduera hauek ezin dira egin: jarduera gogaikarriak, arriskutsuak, legez kontrakoak, osasungaitzak, kaltegarriak...
- Partaidetza-kuotaren arabera, gastu orokorretan parte hartzea, ondasun higiezinari, horren zerbitzuei eta kontserbazioari aurre egiteko.
- Nahitaezko gastuak: Jabeek ezarritako kuotak eta gastuak ordaindu behar dituzte.



4. BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

4.1. JABEEN ERKIDEGOEN ERANTZUKIZUN ZIBILA:

Jabeen erkidegoek erantzukizun zibila dute hirugarrenei kalteak eragiten badizkiete, guztiontzako elementuek txarto funtzionatzeagatik, edo elementu horiek behar bezala ez zaintzeagatik.

Esate baterako: Demagun fatxada batetik, teilatutik edo balkoi batetik zati bat askatzen dela, egoera txarrean egoteagatik; eta horren ondorioz, oinezko batek min hartzen duela, edo hiltzea dela.

Horregatik, erantzukizun zibileko aseguruia kontratatzeke gomendatzen da.




4.2. ERAIKINA KONTSEBATZEKO BETEBEHARRAK ETA ERAIKINAREN IKUSKARITZA TEKNIKOAREN ORDENANTZA

Etxe edo eraikinen jabeek eraikinen segurtasuna, osasungarritasuna, apaintasuna eta bizigarritasuna egoera egokian generikoki mantendu behar dituzte.

Horrez gain, 50 urtetik gora dituen eta bizitegi-erabilera duen edozein eraikinen jabeek, bai eta katalogatutako edo babestutako etxe edo eraikinen jabeek ere, hamar urtean behin ERAIKINAREN IKUSKARITZA TEKNIKOA egin behar izango dute. Hori betetzen ez bada, zehapen-prozedura hasi ahal da.

Informazio gehiago nahi baduzu, honako ordenantza hau kontsulta dezakezu: Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa (EIT) arautzeko Udal Ordenantza.





5. ELKARREKIN ONDO BIZITZEKO AHOLKUAK




-Auzotarren arteko arazoak edo desadostasunak konpontzeko, ezinbestekoak dira elkarriketak, errespetua eta tolerantzia.

-Gizalegearen kontrako jarrerek eguneko elkarbizitza eragozten dute.



◆ Ez bota hondakinak auzotarrei




◆ Ez bota hondakinak barneko patioetara


◆ Umeak denda baten kontra jolasten



◆ Umeek ikasten dute helduen portaera ikusten



◆ Ez apurtu erkidegoko altzariak



◆ Errespetu ezazu atsedan orduak, batez ere 22:00etatik 8:00etara



6. ERKIDEGOAN IGOGAILUA INSTALATU NAHI DUGU, ZER EGIN BEHAR DUGU?

6.1. BEHARREZKO URRATSAK:

1º Erkidegoak erabakia hartzea

Jabeek onartu behar dituzte higiezinaren bizigarritasuna hobetzeko konponbideak. Hala ere, honako hauek hartu behar dira aintzat:

- Higiezinan 70 urtetik gorako lagunik edo etxebizitzara sartzeko oztopoak dituzten minusbaliaturik ez badaude, **jabeen hiru herenek** aldeko botoa eman behar dute.
- Higiezinan 70 urtetik gorako lagunak edo minusbaliatuak badaude, **jabe gehienek** aldeko botoa eman behar dute soilik, jabe horiek partaidetza-kuoten gehiengoa ordezkatzek badute.

Erkidegoak obra hori beharrezkotzat jotzen badu, jabe guztiek ordaindu beharko dute, partaidetza-kuotaren arabera; betiere, baldin eta guztiek, aho batez, diru-zenbateko bera ordaintzea erabaki ez badute.

Horrez gain, igogailua instalatzeko, proiektu teknikoak frogatzen badu beharrezkoa dela eraikinaren etxabea edo jabari publikoa erabiltzea, eta ezin bada adostasunik lortu, obra egiteko beharrezko esparrua desjabetu ahal da.

6.2. ADMINISTRAZIO - IZAPIDEAK

Erkidegoak honako agiri hauek aurkeztu behar ditu, eskaera egiteko:

- Proiektu Teknikoa
- Obrak egingo dituen enpresaren aurrekontua.
- Obra Zuzentzeko batzordea izendatzea.
- Atariaren eta eskailera-kaxaren argazkiak; eta igogailua edo eskailera barneko patio batean jarri nahi badira, patio horren argazkiak.
- Erkidegoaren bileraren akta, zeinetan igogailua instalatzeko erabakia eta presidenteari ordezkatzeko eskubidea eman zaiola jasota baitago.
- Obrak esleitzeko, Erkidegoak eskatu dituen aurrekontuak, gutxienez, hiru.



Eskaera horrekin batera, lizentzia eta diru-laguntza lortzeko izapideak egin behar dira.



6.2. BALDINTZA TEKNIKOAK:

Honako hauek dira baldintzak, eskaileretako zabalera 80 zentrimetrora murriztu ahal izateko:

ERAIKINEAN PERTSONA KOPURUA	IGOGAILU-KABINAK	BARRUALDEA
25 pertsona baino gutxiago bizi badira	55 zm-ko Zabalera	70 zm
25 eta 50 pertsona bitartean bizi badira	70 zm-ko zabalera	90 zm. Igogailura sartzeko ateak, gutxienez, 60 zm-koa izan behar du

Gomendioak: Enpresa espezializatu bati edo batzuei galdetzea, enpresa horiek kasuan kasuko irtenbide ekonomiko eta teknikorik onena eman dezaten.

Udal ordenantzaren arabera, lokal baten jabeak ez badu higiezin hori osoa edo horren zati bat okupatzeko baimenik ematen, eta higiezin hori beharrezkoa bada igogailua instalatzeko, orduan, Udalari eskatu ahal zaio nahitaezko desjabetzea egikaritzeko.

6.3. EGOITZA-HIGIEZINETAN IGOGAILUAK INSTALATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

Nork eskatu ahal du diru-laguntza?

Jabeen Erkidegoaren ordezkariak eskatu ahal dute, erkidegoan igogailua instalatzeko erabakia hartu badute. Beharrezko agiriak aurkeztu beharko dituzte, eskariarekin batera.

Berariazko Antolamenduz Kanpoko egoitza-higiezinak erabat salbuetsita daude laguntza hori jasotzetik.

Diru-laguntza jasotzeko, eraikinek 10 urte baino gehiago izan beharko dituzte. Hala ere, egoitza-higiezinan 70 urtetik gorako lagunak edo mugikortasun urriko lagunak badaude, baldintza hori ez da aplikatuko. Kasu horietan, ez da eraikinaren antzintasuna aintzat hartuko, nahiz eta eraikinak 10 urte baino gutxiago izan.

Eraikinek, gutxienez, beheko solairua gehi hiru solairu izan beharko dituzte. Aurreko kasuan bezala, mugikortasun urriko edo 70 urtetik gorako lagunak badaude higiezinan, ez da baldintza hori aintzat hartuko.

Zein agiri erantsi behar zaizkio eskaerari?

- Obretako lizentzia-eskaera
- Ahalmena duen teknikariak egindako proiektua, oniritzia jaso ondoren, eta partiden arabera banatutako aurrekontua.
- Segurtasun Oinarrizko Azterketa (urriaren 24ko 1627/97 Errege Dekretua).
- Honako datu hauek jasotzen dituen akta: igogailua instalatzeko erabakia eta erkidegoa ordezkatzeko administratzaileari edo presidenteari ahalmena emateko erabakia, administratzaileak edo presidenteak diru-laguntza eskatu eta hartu dezan.
- Minusbaliotasun fisikoa edo mugikortasun urrikoa egiaztatzen duten agiriak.




Zenbatekoa da diru-laguntza?

itzuli beharrik gabeko obretako aurrekontuaren %20koa, BEZ barik. Edonola ere, igogailu berria instalatzeko diru-laguntza 10.818,22 eurokoa da (gehienezko diru-laguntza).

Behin diru-laguntza onartuta eta zenbatekoaren erdia jasota, zein agiri aurkeztu behar dira?

- Laguntza emango dela jakinarazi eta hurrengo 15 eguneko epean, igogailua instalatuko duen enpresarekin sinatutako lan-kontratua.
- Obrak amaitzen direnean: Obraren Amaierako Ziurtagiria. Orduan, diru-laguntzaren beste erdia (%50) emango da.
- Diru-laguntza zertarako eman zen, horretarako erabili dela egiaztatze aldera, igogailua instalatzeko ordaindu diren fakturen kopiak aurkeztu beharko dira, diru-laguntza osoa jaso eta hilabeteko epean.



Igogailuak instalatzeari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, Basauriko Udaleko Hirigintza Sailean eska dezakezu.





7. HOBE ZURETZAT, HOBE BASAURIRENTZAT

7.1. MURRIZTU, BERRERABILI ETA, ONDOREN, BIRZIKLATU!



Potoak,
plastikozko
ontziak eta
tetrabrik
ontziak



Paper eta kartoi
tolestuak. Mesedez, ez
utzi kartoirik edukontzitik
kanpo!



Arropa, oinetakoak,
trapuak (poltsa itxietan)



Pilak



Oloia



Zaborra

Plastikozko ontzi itxietan
sartu behar da

Poltsa itxietan



Beira

Frasko eta botilak tapoirik gabe. Inoiz ez Kristalik.
Mesedez, ez ezazu zure beira zaborrarekin eta beste
materialekin nahastu, bestela, edukiontzi oso bat baztertua
izan baitaiteke birziklatzeko orduan.



Ekogune mugikorra:

Tamaina handiko informatika-materiala, fluoreszenteak, etxetresna elektriko txikiak, jostailu elektriko eta elektronikoak, olioak; oraindik erabil daitezkeen jostailuak, edo erraz konpondu daitezkeenak, geroan beste umeei eman ahal izateko.



Mini-ekoguneak:

CDak/DVDak, inprimagailu-kartutxoak, pilak, bonbillak, sakelakoak, kargatzeko gailuak eta tresna txikiak.

Altzariak, tresnak eta tamaina handiko hondakinak:



Egunero biltzen dira, astelehenetik ostiralera (jaiegunetan izan ezik). Aldez aurretik jakinarazi behar da, eta ondoren, hurbilen dagoen zabor-gunean utzi. Aurretik abisatu behar da "Ierro berdea" web orriaren bidez. Tamaina handiko tresnak igandetik ostegunera atera behar dira, arratsaldeko 20:00etatik goizeko 6:00etara. Obretako hondakinak ez dira zerbitzu horren bitartez biltzen (esaterako, ateak, leihoak, komun-ontziak...)

Helbide elektroniko honetan egin ditzakezu hondakinei edo ingurumenari buruzko kontsultak: www.lineaverdebasauri.com

Halaber, auzotar guztiei jakinarazten zaie ezen, debekatua dagoela kalean edozein motatako hondakin solido edo likido uztea, bereziki **sufrea barreiatzea** –hauts horia- fatxada eta lokaletan, maskotek txizarik egin ez dezaten.



-arriskutsua maskotentzat eta pertsonentzat

-kutsatzailea ingurunearentzat.

Badaude produktu naturalak salgai dendetan maskotentzat, eraginkorrak direnak eta ingurunea kaltetzen ez dutenak.



7.2. ANIMALIAK ETA HIRIKO GUNE PUBLIKOAK

Hirian, animalien eta pertsonen arteko elkarbizitza eragozten duten eztabaida larrienak sortzen dira, txakurrek gune publikoetan kaka egiten baitute.

Txakurren edo etxeko animalien gorozkiak ez biltzea heziketa-, higiene- eta garbitasun-arazoa da. Horrez gain, jokabide errespetugabea da, eta herritarrentzat gogaikarria. Gainera, gizalegez jokatzeko duten animalien jabeek bidegabeko kalte eragiten die.



Gorozkiak plastikozko poltsetan sartu eta kaleko zabor-ontzietan uzten baditugu, Basauri garbiagoa lortuko dugu.



Gainera, gorozkiek erre eta lehortzen dituzte gure lorategietako loreak eta zuhaixkak.

Txakurrak **lepokoarekin eta uhaletik** helduta eraman behar dira bide eta gune publikoetan, bai eta eraikin kolektiboetako guztiontzako eremuetan edo pertsonak dauden tokietan ere. Uhalaren luzerak, gehienez, bi metrokoa izan behar du. Eta, txakurrei, arriskugarritzat sailkatuta badaude, muturrekoa jarri behar zaie.

Basaurin, 5 gune finko daude txakurrak libre ibiltzeko (Kantalazaharreko ezponda, Uribarri Institutuko atzeko aldea, Basozelai eta Kareagako eremua (mendia) eta Elexaldeko landa San Migelen).

Kalean animalia galduak edo abandonatuak ikusiz gero, Udal zerbitzuei abisu eman behar zaie.



Debekatuta dago usoei eta bertan behera utzitako animaliei jaten ematea, izurriterik ez egoteko (arratoiak...).

Udal araudiari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, honako ordenantza hau kontsulta dezakezu: Animalien ukantza eta babesa eta animalia arriskugarrien araubide juridikoa araupetzen dituen Udal Ordenantza.



8. TELEFONO INTERESGARRIAK :

Basauriko Udala: Herritarrentzako Arreta Zerbitzua 8:00etatik 20:00etara, ordutegi jarraituan. Helbidea: Kareaga Goikoa 52. Telefono-zenbakia: 944 666 300

Webgune honetan: www.basauri.net  **Zuzeneko kanala** dago, zerbitzu jakin bat eskatzeko. "Nire izapideak" atalean, zure izapideak kontsulta ditzakezu.

- **Udaltzaingoa** : 94 466 63 45 – 092
- **Gizarte Ekintza** – 94 466 63 48 - Bidearte 10
- **Animalia arriskugarriak** – 94 466 63 48 - Bidearte 10
- **Drogamendekotasun-arloa** – 94 466 63 57- Bidearte 10
- **Berdintasuna** – 944 666 336 - Bidearte 10
- **Ertzaintza:** 946 075 361
- **Babes zibila:** 944 260 188
- **Suhiltzaileak:** 946 077 801
- **Garbigune:** 944 034 090 – www.lineaverdebasauri.com
(Jabetza hiritarreko ganbera : 94 402 17 21)
- **Bizilagun** - Eusko Jaurlaritzaren doako zerbitzua, jabeen erkidegoei aholku emateko:- 94.423.97.04 - Henao 9. www.garraioak.ejgv.euskadi.net
- **Bizkaiko Lursail Administrazioailean Elkargo Ofiziala** – 94 424 61 24 - Ledesma, 10.a bis
- **Bizkaiko Abokatuen Bazkuna** – 94.435.62.00- Uribitarte Erranplak, 3
www.icasv-bilbao.com

Asesoría Jurídica y Área de Modernización
Aholkularitza Juridikoa eta Eraberritze Saila
Ayuntamiento de Basauri - Basauriko Udala





JABEEN ERKIDEGOETAN ELKARBIZITZEKO GIDA

GUIA PARA LA CONVIVENCIA EN COMUNIDADES DE PROPIETARIOS

Asesoría Jurídica y Área de Modernización
Aholkularitza Juridikoa eta Eraberritze Saila
Ayuntamiento de Basauri - Basauriko Udala

